

## IKERKUNTZA

---

Bizkaiko Bertsozale Elkartek, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen ikerketa egitasmoan lagundu egiten du, besteak beste, bilketa beharra eginez.



1991ean sortu zuen Bertsozale Elkartek Xepelar Dokumentazio Zentroa (XDZ), bertsolaritzaren ondarea bildu, antolatu eta gizarteratzeko helburuarekin. Bertsozale Elkartearen sailtako eta herrialdeetako egitasmoei esker eta elkartearen inguruko bertsozaleen bidez osatzen da urte urte Xepelar Dokumentazio Zentroak bildu eta eskaintzen duen ondarea.

Mota guztietako informazioa eta dokumentuak biltzen dira eta bertsolaritzaren berezko sistema dokumentalaren arabera antolatuta eskaintzen du zerbitzu publikoa, bere bilduma eta informazioa behar duen ikertzaile, bertsozale eta hiritar guztien eskura jarriaz. 2011 urtetik aurrera, BDB datu-basea garatu du, bere edukiak antolatu eta Internet bidez eskaini ahal izateko. Hemen, [kontsultak egiteko atala](#).

### **INFORMAZIO GEHIAGO**

Bizkaiko Bertsozale Elkartea

Zabale kalea 9, atzea

48200 Durango

Tel: 946812711

E-posta: [bizkaia.administrazioa@bertsozale.eus](mailto:bizkaia.administrazioa@bertsozale.eus)